DEUSTUALDEKO ALDIZKARIA

Prest!

208 zenbakia
2019 **abendua**

KINKA LARRIAN! Info+ 25. or

Prest!

BERBETAN: **ENARA LOPEZ GALLASTEGI** TXIRRINDULARIA

ERREPORTAJEA: **AUZOETAKO GREBA BATZORDEAK MARTXAN** BARKUA: **'ODISEA'**

TOKIKOM

Gure babesleak

Babestu Prest!

urtean 25€

Aldizkari hau etxean jaso nahi baduzu bidali zure datuak ondoko helbideetara:

Izen-abizenak .....
Helbidea .....
Telefonoa .....
E-posta .....
Kontu zenbakia (Iban) .....

prestharpide@gmail.com
94 447 10 42
Ramon y Cajal 42 / 48014 - Deustu

208 zenbakia
2019ko abendua

aurkibidea

Helene Sarasola Isazelaia - Iñigo Martinez Peña — **Iritzia** — 4

Angel Molina Garcia — **Gureak kanpoan** — 5

e **erreportajea** — 6
Auzoetako greba batzordeak martxan

Urtarrilaren 30ean greba orokorra egingo da Hego Euskal Herrian "lan, pentsio eta bizitza duinaren alde". Aldarrikapenak oihartzuna izaten ari dira gure auzoetan: San Inazio-Ibarrekolanda-Elorrietan eta Deustun greba-komiteak antolatu dituzte.

Deustuko Eskola — **Eskolak** — 10

Lehenengo mailari eusteko estutasunak SD Deustok 1918-19 denboraldian — **Behin batean** — 12

Labore proiektua Deustura dator — **Artikulua** — 14

b **berbetan** — 16
ENARA LOPEZ GALLASTEGIrekin

Txirrindulari profesional gisa ari da Enara (Deustu, 1997) azken bi urteotan. Egun, Dorada Women's Cycling Team taldean. Gogor entrenatzen jardun da Mediterraneo aldean. Etxera gabonetan itzuli denean erantzun ditu PREST! aldizkariaren galderak.

Elorrietako hiltegia — **Irudiak berbetan** — 21

MUSIKA 'Odisea', talde helduago baten emaitza — 24

MUSIKA David Gonzalez: "Musikari ezin diot gehiago eskatu"

PINTXODROMOA Brest kafetegia

KULTUR TXOTX Laura Freijo eta Salva Anakabe Solabarrieta

harkua bete herba

Prest!

Argitaratzailea:
BLB Komunikazioa Koop. Elk.
Tel: 94 447 10 42
Ramon y Cajal 42
Deustu 48014
bilbokoaldizkariak@gmail.com

Zuzendaria: Jone Gartzia Gerra
Erredakzioa: Nerea Olaziregi, Gaizka Suarez, Laura Freijo, Hekor Ortega, Nerea Cubillo, Borja Sarrionandia-Ibarra, Andoni Lopez, Asier Robles, Aitor Sarrionandia-Ibarra, Patxi Gaztelumendi, Olatz Arregi, Mikel Aiartzaguena, Nerea Etxaniz, Lur Mallea, Txema Luzuriaga, Maialen Gago, Jon Intxaurraga
Kolaboratzaileak: Elorri Bertso-Eskola, Deustu eskola, Deustuko Ikastola, Ibarrekolanda BHI, Intxixu Ikastola, San Inazioko eskola, Deustuko Gazte Lokala, Deustuko Jai Batzordea, Errondoko Auzo Etxea, San Inazioko Jai Batzordea
Argazkiak: Ecuador Etxea
Publizitatea: Jone Gartzia Gerra
Diseinua: BO5T
Maketazioa: Amaia Gil Basterretxea
Inprimategia: Antza
Ale kopurua: 2.800
Lege Gordailua: BI-571-01
ISSN: 1577 - 9017

Iñigo Martinez Peña
Filosofia irakaslea

Kameratik kanpo

Ilustrazioak zientziaren argia aldarrikatzen zuen XVIII. mendean, baina hipermodernitateak teknologiaren fokuak piztu ditu eta XXI. mendean gardentasuna da nagusi. Dena ikusarazi, dena ikusgai. Itsutu ote gaitu gehiegizko argitasunak? Egun, adibidez, Singapurreko 1 formulako autoen lasterketa gauez egiten da, argiz beterik. Argiztapen artifiziala eguzkia bera baino indartsuagoa da antza. Horrelako gauak, hirietako gauak bezala, izarrik gabeko gauak dira, kaleko argiek estalita. Hori dela eta sortu zen *Dark Sky* deituriko elkartea, gau ilun eta izartsuez disfrutatzeko eskubidea aldarrikatuz. Hiri erraldoietako ume askok ezagutzen ez duten hori.

Argiak bere itzala behar du. Bata zein bestea. Egun, berriz, badirudi baztertxo bat bera ere ezin dela argitik eta begiradatik kanpo geratu: sateliteak zeruan, bideokamerak edonon, pantailak, GPSak… Pentsamendua ere ikusi omen daiteke giza burmuinaren *neuroirudia* dela-eta, mugimendu neuronalen argazkia eginez.

Baina giza bizitzan bada ere ikusezina, gardena ez dena: gure amets hieroglifikoak, gure desira ezezagunak… ez soilik besteentzako, norbere buruarentzako ere. *Ez gara gure baitakoak*, ez garelako gardenak, baizik eta kontraesankorrak. Horregatik, arraroa badirudi ere, iluntasunaren eta itzalaren beharra aipatu nahiko nuke; sekretuaren, intimitatearen, enigmaren, ezezagunaren alde egin: kameratan harrapatu gabeko bizitza hori. Gehiegizko argitasuna kontrol zorrotza izan daiteke eta giza gerizpea babestu beharrean gaude. Gure gizartea nahiko voyeurista da, baina ikusten ez dena ez da zertan kriminalizatu edo patologizatu behar. Printze txikiak esan bezala, “funtsezkoa dena, ikusezina da begientzat”.

Helene Sarasola Isazelaia
Ikaslea

Klik batera

“Klik batera” bizi garela entzun nuen orain dela gutxi, hainbat euskal sortzaileri egindako elkarrizketa batean. Haien ustez, entzulearen arreta hasieratik erakarri ezean, entzuleak berehala aldatzen du kantaz. Gaur egun, dena oso eskura dagoela gaineratu zuten, aspertzeko denborarik eta gogorik ez dugula esanez. Garaiotako sortzaileei doinuak eta hitzak ekoiztea gero eta zailagoa egiten zaiela zioten.

Honezkero, gehienek entzunda edo frogatuta edukiko duzue Satisfyerra. Despistatuentzat, klitoria laztantzen duen gailua da, eta, minutu batean, plazerik gorenenera heltzeko balio duela kontatzen dute, pozarren, erabili dutenek. Labur esanda, leherketa sexuala da. Pertsonok askotan kostata lortzen duguna, martxan jarriaz batera lortzen du Satisfyerrak. Hots, laztanekin, listuarekin, mingainarekin, atzamarrekin… gozatzera iritsi beharrean, etxean bakarrik gaudela, gailua hartu eta paradisura eramaten zaitu ziztu batean; aspertzeari edo pentsatzeari astirik utzi gabe.

Baina, gure azalak, gorputzak eta harremanak ere klik batera al daude? Pertsona bati eskatu ezin dioguna, makina edo robot bati eskatzeak zer ondorio izan ditzake gure harremanetan? Gailua probatu ostean, gai izango al gara norbait ezagutzeko eta harekin gozatzeko? Kanta bat gustatu ez eta, berehala, hurrengora jotzen dugun bezala, harremanekin ere, gustatzen ez zaigun momentuan hurrengora jo behar dugu? Gozamen efimeroa besterik ez dugu nahi? Orgasmoak edo aurrekariak nahiago ditugu?

Amamak esaten du kontraesanik ez duen pertsona ez dela fidagarria. Amamek beti dute arrazoia eta Olentzeroren zerrendan nik ere Satisfyerra gehituko dut.

Angel Molina Garcia

Jatorria: Arangoiti
Bizitokia: Pollensa, Mallorca
Lanbidea: Osteopata eta soinu terapeuta

"Soinuz eta dardaraz masajea ematen diet pertsonei"

Testua
Jone Gartzia

Zer dela eta joan zinen Mallorcara?

Harreman sentimental batengatik joan nintzen, orain hemeretzi urte.

Soinuak eta osteopatia uztar-tzen dituzu, nola?

Oso ondo uztartzen diren bi diziplina dira. Nik gure organismoa orkestra handi baten gisara interpretatzen dut: gorputza ere afinatu daiteke immunitate-sistema hobetzeko.

Nola sortu zen esku artean duzun proiektua?

Bilbon bizi nintzela hasi zen egosten. Garai hartan osteopatian aritzen nintzen batez ere. Osteofonia (entzutearen pedagogia) ikasten amaitu nuenean antzinako kulturetatik etorritako soinuak ezagutzen hasi nintzen, eta horien helburu terapeutikoaz jabetu nintzen.

Zelan ematen da masaje bat soinuekin?

Oso jarduera erraza da, dibertigarria eta eraginkorra, eta, gainera, ez da aurretiko esperientziarik behar. Bizi dugun unearen kontzientzia hartzeko ariketa bat da, arnasketaren bidez, soinuaren dardararen bidez eta isiltasunaren bidez. Gorputza sentsibilizatzeko ariketak egiten ditugu, mugimenduak, dantza, abestutako soinuak eta bibrazioak, arnasketa eta meditazioaren bitartez. Horretarako, hainbat instrumentu erabiltzen ditut eta soinuz eta dardaraz masajea ematen diet pertsonei.

Zein da honen helburua?

Barneko tentsio sakonak erraz askatzea, pazienteak hainbat egoera igaroz: ongizatea, erlaxazioa, bakea, harmonia... Soinu binauralak eta 432 hertzioko soinuak erabiltzen ditugu horretarako.

Zein da gorputzaren eta soinuen arteko harremana?

Unibertsoaren sorreran eta giza bizitzaren sorreran ere, amaren umetokian, soinua presente egon da mugimendu eta dardaren bitartez, bi eboluzio-prozesuak lagunduz. Horregatik diogu soinua kreazioaren oinarrizko hatsa dela, atomoen eta zelulen ahotsa balitz bezala.

Nondik datorkizu musikarekiko zaletasuna?

Zentzua dudanez geroztik, nire oroitzapen gehienak musikarekin lotutakoak dira.

Mallorcan bizitzea gustatzen zaizu?

Bai, izugarri. Batez ere, paraje naturalengatik, klimagatik eta argitasunagatik gustatzen zait.

Katalana ikasi duzu?

Bai, baina ez dut asko erabiltzen.

Erabiltzen da zure inguruan?

Bai, inguruaren eta giroaren arabera asko entzuten da. Mallorcan hainbat jatorriko jendeak egiten du bat.

Zerk harritzen zaitu gehien bertatik?

Aniztasunak eta jardueren eskaintza zabalak.

Mantentzen duzu Arangoitirekin harremana?

Bai, nire familia bertan bizi da eta noizean behin bisitan etortzen natzaie.

San Inazio-Ibarrekolanda-Elorrietako greba batzordea.

AUZOETAKO GREBA-BATZORDEAK MARTXAN

Urtarrilaren 30ean greba orokorra egingo da Hego Euskal Herrian "lan, pentsio eta bizitza duinaren alde". Aldarrikapenak oihartzuna izaten ari dira gure auzoetan: San Inazio-Ibarrekolanda-Elorrietan eta Deustun greba-komiteak antolatu dituzte, auzootako mobilizazioak prestatzeko, informazioa zabaltzeko eta aldarrikapenak gizarteratzeko.

Testua: Jone Gartzia

Sei urte joan dira sindikatuek Hego Euskal Herrian azken greba orokorra antolatu zutenetik. 2013ko maiatzaren 30ean izan zen hura. Aurreko lau urteetan, 2009tik 2013ra arte, zazpi egin ziren. Nolanahi ere, bestelako grebak antolatu egin dira. Azken bi urteotan, mugimendu feministak bi greba orokor deitu ditu Emakume Langilearen Nazioarteko Egunean, martxoaren 8an, alegia, eta sektore lanuzteak asko eta askotarikoak izan dira: metalean, kirolean, kristau eskolan, garraioan, zaintzan, garbiketan...

Bada, krisi ekonomikoa deritzona hasi zenetik hamarkada luze igaro denean eta Hego Euskal Herriko pentsiodunek bi urte beteko dituztenean protestetan, greba orokorra deitu dute Euskal Herriko hainbat eragile eta sindikatuk, 2020ko urtarrilaren 30erako, hain zuzen.

2018ko urtarrilaren 15ean, astelehenez, elkartu ziren lehen aldiz Bilboko udaletxearen aurrean hainbat erretirodun 1080 euroko gutxieneko pentsioa eskatuz. Da-

2013ko martxoaren 30eko greba San Inazio, Elorrieta eta Ibarrekolandan.

goeneko 100 astelehen baino gehiagotan errepikatu dute ekintza bera, eta mugimendua Hego Euskal Herri osora hedatu da. Bi urte hauetan 13 mobilizazio handi antolatu dituzte eskualdeka eta zenbait lorpen erdietsi badituzte ere, "txikiak" izan direla esan digu Jon Fanok, Pentsionistak Martxan mugimenduko kideak.

Mobilizazioak hasi zituztenetik pentsioak %1,6 igo dira, pentsio baxuenak %3, eta alargunak ezkonlagunaren soldataren %52a jasotzetik %60a jasotzera igaro dira. Diru-sarrerak Bermatzeko Errentak (DBE) %4,5 egin du gora pentsiodunentzako, baina neurriak ez duela ezer konpontzen uste du Fanok, pentsio baxuenak jasotzen dituzten emakumeen kasuan, esaterako, askok ez dituztelako DBEa jasotzeko baldintzak ere betetzen. Bestalde, jasangarritasun faktorea 2023. urtera atzeratzea lortu dute, baina ez bertan behera uztea. Sostengarritasun faktorea pentsioak kalkulatzeko indize bat da, biztanleriaren bizi itxaropena eta Estatuaren egoera ekonomikoa kontuan hartzen dituena. Hainbat azterketaren arabera, irizpide hau kontuan hartuz gero, 15 urtetan pentsioak %30 murriztuko lirateke.

Aurrerapausoak aurrerapauso, bide luzea du aurretik pentsio duinen aldeko mugimenduak, eta amore emateko asmorik ez. Bi urteko ibilbide luze honetan gizarteko hainbat eragilerekin hartu-emana izan du: mugimendu feministarekin, langile eta sindikatuekin, gazte kolektiboekin... Horren fruitu da Eskubide Sozialen Kartak egindako lanuzte deialdia. Salto kualitatiboa eman eta "inflexio puntua" bilatu nahi izan dute horrela, astelehenetako elkarretaratzeak "ekintza monotono bilaka ez daitezen".

Pentsio duinak defendatzeaz gain, pertsona nagusien arretan ere jarri nahi dute azpimarra. Zaintza zerbitzu publiko, unibertsal eta doakoa izatea nahi dute, artatuen eta zaintzaileen baldintzak babesteko. Jakitun dira eskatzen dituzten neurri gehienak momentuz Madrilgo gobernuaren menpe daudela, baina, era berean, jakin badakite EAEko eta Nafarroako gobernuek baliabide legalak eta ekonomikoak dituztela osagarri bidez gutxieneko 1080 euroko pentsioak bermatzeko.

Deialdia luzatu zenetik, eskualde, herri eta auzo guztietan greba prestatzen ari dira buru-belarri. Auzo guztietako komiteetan

"Salto kualitatiboa eman eta 'inflexio puntua' bilatu nahi izan dute pentsiodunek"

Azaroaren 16an pentsiodunek Bilbon antolatutako manifestazioa. Argakia: Ecuador Etxea.

Abenduaren 22an etxeko langileek eta zaintzaileek egindako elkarretaratzea. Argazkia: Ecuador Etxea.

EGIN
SALTO
EUSKARAREN
MUNDURA!



LANTEGI
BERRIA
daukagu prest zuretzat
Zatoz bisitan ikastetxearekin!
Galdetu hemen:
94 402 80 81 • info@euskararenetxea.eus
• Agoitz plaza 1 48015 Bilbao, Bizkaia

hartzen dute parte, eta grebaren garrantzia gizarteratzea dute helburu. Nolanahi ere, ez diote astelehenetako elkarretaratzeak egiteari utziko.

Mugak jartzeko "planto" orokorra

"Krisiaren aitzakian azken hamarkadetan azkartu den lan eta bizi baldintzen prekarizazioari mugak jartzea" da Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartaren helburua. Eredu sozio-produktibo berri baten premia azpimarratu dute, "bizitza erdigunean jartzeko eta zaintzari eta planetaren jasangarritasunari lehentasuna emateko". Eredu horren ardatzak izango liratekeenak ere zerrendatu dituzte: aberastasunaren birbanaketa, sektore publikoaren lidergoa eta eskubideen unibertsaltasuna, besteak beste. Horiek horrela, mobilizazio dinamika abiatzea erabaki dute, deialdia egin zuten egunaz geroztik martxan dena.

Horretarako, greba metodo klasikoak eta berriak uztartuko dituzte. Izan ere, "greba soziala" da hau, LAB sindikatuko eta San Inazioko bizilagun Iñigo Alonsok azaldu bezala, lan-baldintzekin lotutako eskakizunekin batera, aldarrikapen sozialek pisu handia izango dutelako. "Konfrontaziorako sinbolo berriak eta borroka molde berriak bilatu behar dira, lan zentroak ixteaz gain, aldarriak gizarte osora zabaltzeko", diosku.

Aldarrikapenak auzoetara ekartzeko greba-batzordeak antolatu dituzte bai San Inazio-Ibarrekolanda-Elorrietan bai eta Deustun ere. Gizarte sektore ahalik eta zabalena aktibatzea dute asmo: pentsiodunak, emakumeak, gazte eta ikasleak edota soldata gabeko langileak, finean, langileria osoa grebara eta protestetara batzeko.

Propaganda modu askotara zabaltzen ari dira eta mobilizazio eta ekintza ugari iragarri dituzte. San Inazion, esaterako, manifestazioa egingo dute urteko azken larunbatean, abenduaren 28an; eta urtarrilaren 17 eta 18rako jardunaldiak antolatu dituzte Errondoko Auzo Etxean. Espazioa, azken greba feministetan bezala, sostengurako gune izango da, "zaintza kolektiborako, bazkaltzeko, atseden hartzeko, borrokarako prestatzeko eta behar denerako". Grebaren egunean bertan, ohi bezala, goizeko piketeen ostean zutabeak egingo dituzte auzoetatik Bilboko manifestazioetara joateko.

Deustuko metalgintza ere aktibo

Azken hilabeteotan Bizkaiko metalak borroka luzea izan du patronalarekin hitzarmena berritzeko ahaleginetan. Guztira, hamar egunez egin dute greba 2019an, eta hainbat manifestazio handi antolatu dituzte Bilbon, azaroaren 27an aurreakordioa sinatu arte. LABeko metaleko arduradun Marijo Romerok argitu bezala, Deustun industria poligono handirik ez badago ere, hainbat dira metalaren sektorearen pean biltzen diren tailer eta lantegiak. Consonni, Elecnor, Applus norcontrol, Schindler, Suez Traments Solutions, Bilbo Berri Auto eta Eni aipatu ditu, bai eta ordezkaritza sindikalik gabeko tailer txiki asko ere. Kale argiztapenaren mantenuan Udalak azpikontratatuta lan egiten dutenak ere metalaren sektorekoak dira eta hitzarmen berriaren alde borrokan askok hartu dute parte lanuzteetan eta mobilizazioetan.

Romerok azaldu digunez, "Deustu, Bilboko gainerako auzoak bezala, ez da inposatu nahi diguten hiri ereduaren aurrean kanpo gelditzen". Kontsumora bideratutako hiria, "erakusleiho hiria", industriako langileak ezkutatzen saiatu den arren, berton metalaren sektoreko kide asko daudela nabarmendu du. Zerbitzu pribatuetan lan egiten dutenen prekaritate gordina eta sektore publikoan etengabe egindako murrizketek ere auzoko langile klasean eragina dutela gaineratu du, urtarrileko grebara batzeko deia luzatzearekin batera.

"Konfrontaziorako sinbolo berriak eta borroka molde berriak bilatu behar dira, lan zentroak ixteaz gain, aldarriak gizarte osora zabaltzeko"

EUSKARAREN EGUNA

Abenduaren hiruan, urtero legez, gure eskolan Euskararen Eguna ospatu genuen 'euskarak mila aurpegi' lelopean.

Testua eta argazkiak
Deustu Eskola

Astebete lehenago geletan lanketa ezberdinak egiten hasi ginen, giroa berotzeko: murala prestatu, dantzak entseatu, abestiak buruz ikasi…

Abenduaren hirua iritsi zenean, hainbat ekintza antolatu genituen egunean zehar. Giro ederrean ibili ginen dantzan, kantuan eta geletan ariketa ezberdinak egiten. Eskolako nagusiek oso kartel polita egin zuten bihotz handi baten erdian gure eskolako 'mila aurpegiak' itsatsiz, aurtengo leloak dioena jarraituz.

Eguraldia lagun izan genuen eta horri esker eskolako lagun guztiak Blas de Otero kalera ematen duen jolaslekuan ibili ginen dantzan. Kaletik pasatzen ziren hainbat pertsona begira geratzen zitzaizkigun, eta eurak ere dantzan hasi ziren gure umore onarekin kutsatuta.

Dantzan egiteko abesti hauek aukeratu genituen: *Hartu kontrola; Ahoa bizi, belarriak prest!* eta *Euskaraz bizi nahi dut.* Egunari amaiera bikaina emateko denon artean *Gure nahia* abestia abestu genuen.

Tamalez, oraindik urtero jarraitu beharko dugu Euskararen Eguna ospatzen, gure hizkuntzak normalizaziorako bide luzea egin behar duelako. Egoera apurka-apurka aldatzen doan arren, erne egon behar dugu, eta horregatik jo ta ke ibiliko gara euskara denon ezpainetan entzun arte, edo behintzat egiten dugunok leku guztietan ulertuak izan arte.

GUK EUSKARAZ... ZUK, ZERGATI KEZ
E
U
S
K

LEHENENGO MAILARI EUSTEKO ESTUTASUNAK SD DEUSTOK 1918-19 DENBORALDIAN

1918-19 denboraldian Sociedad Deportiva Deustok futboleko gorengo mailan bere lehenengo urtea osatu zuen. Txapelketa txarra egin zuen taldeak eta, horren ondorioz, hil ala biziko partida batekin amaitu zuen denboraldia.

Testua:
Hektor Ortega

PREST!eko 191. zenbakian eman genuen Sociedad Deportiva Deustoren igoeraren berri. 1917-18 denboraldian lortu zuen balentria, B mailako txapeldun atera ostean. Hurrengo urtean, 1918-19 denboraldian A mailan jokatu zuen SD Deustok Iparraldeko Eskualdeko Txapelketa, Athletic eta Arenas erraldoiekin eta deustuarrak bezala beheko mailetatik zetozen Erandio eta Santanderko Racingekin batera. Sasoi hartan hura zen gorengo maila. Iparraldeko Eskualdeko txapeldunak, Gipuzkoako, Erdialdeko eta Kataluniako txapeldunekin batera, Errege Kopa jokatzeko txartela lortzen zuen.

Ez dugu datu askorik lortu deustuarren kanpainaren gainean, baina argi esango dugu negargarria izan zela. Partidetako kronikak prentsan irakurrita, badirudi klubak ez zeukala gaitasunik txapelketa prestatzeko, sarritan aipatu baitzuten deustuar jokalarien entrenamendu falta. Are gehiago, taldea ez zen aurkeztu partida bitara (orotara zortzi jokatu behar zituen). Kontuan hartu futbola artean hasiberria zela gurean, futbolariak amateurrak zirela, eta azpiegiturak ere urri, nahiz eta Deustuak Etxezuriko zelai dotorea zeukan 1917ko urtarriletik. Entrenatzera joateko deialdiak egunkarietan agertzen zituzten klubek. Esaterako, SD Deustok honela jakinarazi zuen La Tarde egunkarian 1918ko irailaren 21eko alean: “El próximo domingo 4 a las diez de la mañana se jugará en el campo de Etxe-Zuri un partido de entrenamiento con el Fortuna Sport. Se ruega la asistencia a los señores Anuzita, Arostegi, Basterretxea, Bilbao (R y E), Carmelo, Kortadi, Zelaya, Cortina, Deprit, Larraza, Martinez, Urdangarin, Biar, Zubizarreta, Zubiria”.

Deustok partida biak galdu zituen Arenasen kontra (3-1 eta 1-7) eta beste horrenbeste egin zuen Athleticen aurka (4-1 eta 2-6). Baina erraldoi handiak ez zeuden, inondik inora euren onenean, kazetariei jaramonik eginez gero, behinik behin. Kroniketan irakurri dugunez, Bizkaiko taldeen krisia nabarmena zen, Athleticek ez zeukan antzik ere 1913-1916 bitartean hiru Kopa jarraian irabazi zituen taldearekin eta Arenas, sasoi hartan Bizkaiko hamaikakorik onena, makal antzean zebilen. Gogo eza eta entrenamendu gutxi leporatzen zieten. Artean, Pitxitxik, Belaustek eta beste mito batzuk jokatzen zuten lehoiekin, baina emaitzak apalak ziren.

Racing eta Erandio

Santanderko Racingekin lehia polita eduki zuen aurreko urteetan SD Deustok. Antzeko ibilbidea egin zuten, bigarren mailan, B mailan eta A mailan. Baina denboraldi hartan ez zen orekarik izan. Etxezurin santandertarrak nagusitu ziren, 0-2, eta Euzkadi egunkariko Arabeas kazetariaren arabera, deustuarren gogo eza nabarmena zen. Kronikan beste kontu bat aipatu zuen: Deustuko zelaiko publikoaren parte bat erandiotarra zen eta hark Kantabriakoen golak txalotu zituen.

Izan ere, lehia bizia zegoen deustuarren eta erandioztarren artean. Albo-herriak izanik, normala izaten da, baina sasoi hartan Erandiok lantzean behin Etxezurin jokatzen zituen bere partidak, eta horrek are gehiago piztu zuen bi zaleen arteko lehia. Deustuarren eta erandioztarren arteko partida San Jose egunez jokatu zen Etxezurin. SD Deustok irabazi zuen, 2-1, Euzkadi egunkarian irakurri dugunaren

Deustua eta Arenas nor baino nor gehiago Etxezurin (1922). Argazkia: Txema Luzuriagaren bilduma.

arabera, baina badirudi geroago federazioak deustuar kluba zigortu egin zuela eta puntuak galdu zituen.

Horrez gain, deustuarrak ez ziren aurkeztu Santanderren Racingen aurka jokatu behar zuten partidara, ezta Erandioren kontrakora. Kasu bietan puntu barik gelditu ziren, jakina.

Fortunaren aurka

Txapelketaren amaieran, SD Deusto azkena zen, punturik urratu gabe. Hortaz, promozioa jokatu behar izan zuen. Aurkaria? Bizkaiko B mailako txapeldunaren eta Kantabriako txapeldunaren arteko irabazlea. Bilboko Fortuna talde historikoa gailendu zen. Partida San Mamesen jokatu zuten, maiatzaren 24an. Hilabete bi lehenagotik, deustuarrek partidaren garrantzia azpimarratu zuten. SD Deustok oharra kaleratu zuen martxoan esanez "gaur A mailan daukagun lekua galduz gero gure elkartearen hondamendia etorriko da". Horregatik, besteak beste, entrenamenduak indartzera deitu zuen.

Ez dakigu horren emaitza izan ote zen, baina deustuarrak 2-1 nagusitu ziren Fortunaren aurrean eta, ondorioz, A mailan segitzea lortu zuten. Golak Carmelo (gerora Athleticeko mitoa izan zen Carmelo Goienetxea deustuarra) eta Arostegiren bidez heldu ziren. Arerioen gola Urdangarin atezainaren huts baten ondorioz iritsi zen, baina esan dezagun, bide batez, denboraldiko partida gehienetan deustuarren artean ondoen ibili zena Urdangarin bera izan zela.

Bizkaiko futbola kinka larrian ikusten zuten kazetariek eta, pentsatzekoa da, zaletuek. Bada, denboraldi hartan Arenasek 5-2 irabazi zion Bartzelonari Kopako finala. Eta hurrengo final bietan (1920 eta 1921), Athleticek parte hartu zuen, baita bat irabazi ere. Horren txarto bagenbiltza gaur ere...

Kalderapeko
euskal kultur gunea
www.kalderapeko.com
txakur kalea, 1. 48005
bilbo • euskal herria
tfnoa: 94 416 40 99

artikulua
Elikadura

LABORE PROIEKTUA DEUSTURA DATOR

Arnasten duguna, edaten duguna… eta jaten duguna gara. Gero eta ikerketa gehiagotan ikusi den bezala, minbizien %20a hereditarioak dira, %40a dugun bizimoduagatik sortzen dira eta gainerako %40a gure elikadurak eragindakoak dira. Beraz, egunero ahora sartzen duguna uste baino garrantzitsuagoa da.

Testua: Deustuko Labore Taldea

Horregatik, 2017ko amaieran Labore Bilboko lehenengo supermerkatu kooperatiboa sortu zen. Bazkideok sortutako kontsumo talde bat da, irabazi asmorik gabekoa. Helburua erosleen eta ekoizleen arteko aliantza bat egitea da, bi aldeak hartu-eman egokian egoteko: ekoizleek janariak behar diren prezioan kobratzeko eta erosleek kalitatezko janariak eskuratzeko, arrazoizko prezioan. Izan ere, ekoizleek prezio duinak jasotzen ez dituzten bitartean ezin izango dugu kalitatezko janaririk sekula izan.

Une honetan Laborek 500 bazkide baino gehiago dauzka eta Santutxuko Haro plazako 3. zenbakian, Zabalbide metro irteeratik gertu duen lokal zabalean, 1.000 produktu mota eskaintzen ditu. Janariak ez ezik, badira ere bestelako produktuak, garbigarri ekologikoak esate baterako. Okela ere enkargatzeko aukera dago.

Produktuen aukeraketa hiru irizpideren arabera egiten dute: bertokoa izatea, 0 Km-tik ahalik eta hurbilen egoteko; ekologikoa izatea, gure eta ingurukoen osasuna elikaduraren bitartez zaindu nahi dutelako eta, azkenik, justua, alderdi bientzako. Gainera, edozein bazkidek proposa ditzake produktu berriak, aipatutako irizpideak eta taldearen kontsumo ohiturak kontuan hartuz gero.

Baina Laborek bere zerbitzua zabaldu nahi du eta horretarako Errekalden proiektu bat abian jarri zuen: hamabostean behin erosketak online egin ahal izatea eta auzoraino eramatea. Esperientzia horrekin pozik daudenez, deustuar batzuei antzeko zerbait egitea proposatu ziguten eta horrela Deustuko Labore taldea sortu genuen irailean.

Helburu bat jarri dugu: bazkide egiteko prest dauden 40 bat sendi edo norbanako topatzea. Online egindako erosketak hilean bi aldiz Deusturaino ekarriko lizkigukete. Esan beharra dago online oinarrizko produktuak baino ezin direla erosi, normalean gehien gastatzen direnak: olioa, esnea, etab. Dendan gehiago egoten dira.

Orain arte bi aurkezpen egin dira Deustun, bata Ikastolan eta bestea Gaztetxean. Batzuek zerbait entzun dute baina gehienentzat Labore kontu berria eta interesa erakusten ari dira. Apurka-apurka proiektua izena hartzen ari da eta urtarril-otsailerako 40ra heltzea espero dugu.

Proiektu honi buruz informazioa jaso nahi izanez gero telefono honetara deitu daiteke: Patxi 663 901 248. Bestetik, Santutxuko dendara ere joateko aukera dago eta erosketaren bat bazkide izan gabe egin. Horrela, zer produktu mota eskaintzen duten eta zer preziotan dauden ikus daitezke, proiektuan sartu baino lehen Labore hobeto ezagutzeko.

Hedapen lana egitea ere eskertzen dizuegu, hau da, proiektu honetan interesa eduki dezakeen baten bat ezagutuz gero honen berri ematea. Eskerrik asko eta gogoan izan: osasuna gure esku dago!

artikulua
Berbaizu

BERBAIZUK IRUDI BERRIA DU!

Urtzi Ugalde erriberatarrak egindako diseinuak irabazi du Logo lehiaketa eta, urte berriarekin batera, elkarteak irudi berria estreinatuko du 2020an.

Hamarkada berrian itxura berria jantziko du Berbaizu Euskara Elkarteak. Atzean geratu da logo zaharra, Deustuko armarriaren zati bat irudikatzen duen ikurrak ordezkoa duelako: Urtzi Ugaldek egindako *Berba egizu* diseinua. Erriberako biztanlearen lana gailendu da azaroan martxan jarritako logo lehiaketan eta 100euroko saria etxera eraman du. Lehia estua izan da eta epaimahaiak Ugalderen proposamena aukeratu du "itxura serioa eta dinamikoa" transmititzen duelako. Pozik agertu da sariarekin eta logoa euskara plazara zabaltzeko baliagarria izango dela espero du.

Elkartearen jarduna errora hurbiltzea buruan sortu zuen garaile atera den lana. Bertan, komikietan agertzen diren bunbuilo bat ikusten da, *be* bat barruan duena. Elkartearen izenaren lehen letrari indarra emateko erabili du egileak, euskarazko elkarrizketa bat irudikatu guran. Tipografiari dagokionez, "euskalduna" dela zehaztu du, "sinplea, baina elegantea", epaimahaiak azpimarratu duen modura. Ugaldek azaldu duenez, logo berria bifuntzionala da eta imagotipoa (bunbuilo barruan dagoen bea) zein logotipoa hainbat euskarritan eta plataformatan erraz erabiltzeko diseinatuta dago. Beraz, bi eratan erabili daiteke. Koloreari dagokionez, berdez tindatuko du Berbaizuk, jaietako sudaderaren kolorea delako. Ugaldek berdexeago aurkeztu nahi zuen, baina inprimaketa arazoak tarteko, azkenean urdinago atera zen.

Urtzi Ugalde logo berriarekin

Testua: Jon Intxaurraga

Gogoeta prozesuaren kimua

Urriko PREST! aldizkarian kontatu bezala, elkarteak hamarkada berrian jarrita du begirada. Hori dela-eta, *Berbaizu 2020-2030 hamarkada berriari begira* jardunaldia antolatu zuten irailaren 28an. Prozesua amaitu barik dagoen arren, egun hartan hainbat gauza erabaki ziren, besteak beste, logoa berritzea. Horren ondorioz, lehiaketa martxan jarri zen eta 2020an Berbaizuk irudi berria izango du. Prozesuari dagokionez, Zuzendaritza Batzordeak irailaren ideiak ordenatu ostean, luze gabe hasiko da irailean egindako batzarraren "itzuliko partida" prestatzen. Hitzordua laster jakinaraziko dizue, adi egon!

¡Berba aholkularitza
Euskara normalizatzeko laguntzak

Kukubat
Turismo etnokulturala

Ongi Mugi
Mugikortasun jasangarria

berbetan

ENARA LOPEZ GALLASTEGIrekin

Txirrindulari profesionala

“Profesional izateko

Txirrindulari profesional gisa ari da Enara (Deustu, 1997) azken bi urteotan. Egun, Dorada Women´s Cycling Team taldean. Gogor entrenatzen jardun da Mediterraneo aldean. Etxera gabonetan itzuli denean erantzun ditu PREST! aldizkariaren galderak.

Testua: Lur Mallea
Argazkiak: Ecuador Etxea

borrokatu naiz”

Mediterraneotik itzuli berri harrapatu zaitugu. Zertan zabiltza une honetan?
Andorra, Alicante eta Benidorm aldean hilabete eman dut gogor entrenatzen. Burgos Casa Dorada Women´s Cycling Team taldearekin sinatu dut aurten. Era berean, Aho-hortzetako Higiene goi mailako zikloa ikasten ari naiz. Gabonetan egun batzuk etxean pasatzera etorri naiz Deustura.

Zelakoa izan da zure txirrindulari ibilbidea?
Duela bederatzi urte hasi nintzen. Egia esan, urtero egin dut hobera. Asko ikasi dut. Horrekin geratzen naiz.

Hainbat sari eskuratu dituzu. Zeintzuk nabarmenduko zenituzke?
Espainiako 23 urtez azpiko Kopa, CX Euskadiko Txapelketa Izarra, Euskaldun Elite Torneoa eta Lizarran jokatu zen Espainiako Kopa.

Profesional izatera iristea zelako bidea izan da?
Profesional izateko borrokatu naiz. 2017tik naiz profesional. Nire ametsetako bat izan da beti. Sakrifizio, konstantzia eta ardurari esker lortu dut.

Txirrindulari taldeetan zer ikasi duzu?
Bost taldetan aritu naiz orain baino lehen: Balmasedana, Mendiz Mendi, CAF, Sopela eta Bizkaia Durangon. Asko ikasi dut horietan, besteak beste, bizikletan

“Nazioarte mailako garaipenak lortzea dut amets”

▷ ▷ SAKONEAN

“Lehen gozamen hutsa zen, orain nire ogibidea”

Zer dela eta hasi zinen txirrindularitzan?

Hamairu urterekin hasi nintzen nire neba ere bizikletan hasi zelako. Zelan lehiatzen zen ikustera joaten nintzen, eta gustuko nuen.

Zer da zuretzat bizikleta?

Lehen gozamen hutsa zen, orain nire ogibidea da. Bai ala bai aukeratuko nukeen ogibidea.

ibiltzen, tropel barruan mugitzen, lasterketako estrategietan pentsatzen eta talde gisa korrika egiten.

Zeintzuk dira zure dohain nagusiak?
Aldapa gora ondo moldatzen naiz, eskalatzailea naiz.

Noraino iristea duzu amtes?
World Tour mailako talderik onenetako batean nago egun. Esango nuke, taldearentzat nazioarte mailako garaipenak lortzea dudala amets. Denean lagundu nahi diot taldeari.

Zein da emakumeen txirrindularitzaren egoera?
Oro har gero eta hobea. Euskal Herrian, batik bat, zaletasun handia dago eta, horren ondorioz, egutegia beteagoa da hemen.

Zer hobetu edo aldatu beharra dago emakumeen txirrindularitzan?
Emakumeen txirrindularitza izena aldatu beharra dago eta Txirrindularitza hutshutsean erabili.

Zein da emakumeen eta gizonen txirrindularitzaren arteko aldea?
Distantziak. Emakumeen probetan distantziak laburragoak izaten dira gizonen probetan baino.

Zeintzuk dira berdintasunaren bidean eman beharreko pausoak?
Ari dira erakundeak pausoak ematen berdintasunaren bidean. Esaterako, Espainiako Kopan proba kopuru dezente antolatzen edota Espainiako txapelketak telebistan emititzen. Gu, emakumeok, gizonak bezain txirrindulari sentitzen gara. Gure lanbidea serioski hartzen dugu. Gure taldean denok dugu argi hau gure lanbidea dugula.

Erreferenterik baduzu?
Marianne Vos. Anbizio handiko txirrindularia da, ausarta.

Zenbat denbora ematen duzu etxetik kanpo?
Nahiko. Aurten 60 egunetan lehiatu naiz. Egun horiei joan-etorriak eta kontzentrazioak erantsi behar zaizkie, beraz, pentsa!

Zelan konpontzen zara etxetik kanpo?
Gero eta hobeto, baina baditut hobetzeko zenbait gauza, kar, kar, kar! Familia sumatzen dut faltan, egunero ematen didan babesa batik bat.

Geroz eta bizikleta gehiago erabiltzen da Deustualdean. Zer deritzozu?
Garraiobide merkea, ekologikoa eta osasungarria da. Aurrerapena deritzot.

Zein aholku emango zenieke txirrindularitza zale gazteei?
Gozatzeko egiten duten horrekin eta, benetan gora iritsi nahi badute, gogor ekiteko eta konfidantza izateko euren buruan.

“Denok dugu argi hau gure lanbidea dugula”

JAIAK

Ospatzeko mila aukera

Abenduko hotzarekin batera gabonetako oporrak eta festak datoz errenkadan. San Tomas eguna izan ohi da neguko denboraldiari hasiera ematen diona, eta ostean datoz Mari domingi eta Olentzero, Gabon zaharra edo Errege Gaua. Gurean ere izango dugu jaiegunok ospatzeko aukera ugari. Kalejirak egingo dituzte auzo guztietan Gabon Gauean, urteko azken asteburuan Deustuko Ezker Abertzaleak kontzertuak antolatu ditu Deustuko goiko aldeko hainbat tabernatan, Gaztetxeak herri mugimenduaren azoka egingo du, Gabon zahar egunean Ondalanek urteroko erromeria egingo du bertan ere, eta urtarrilaren 5ean Gazte Gaua ospatuko dute Herriko Tabernan.

KIROLA

Lehen maila gertu berriz ere

Deustuko Arraun Taldeak inoiz baino gertuago izan du goi mailara jauzi egiteko aukera aurtengo denboraldian. Ez zuten lortu, kanporaketan hirugarren sailkatu zirelako. Eusko Label ligan jokatzeko txartelak Zarautzek eta Galizako Ares taldeek eskuratu zituzten. Asteotan berriz ere piztu zaie maila gorenera heltzeko esperantza, azken talde honetako arraunlari batek positiboa eman duelako furosemidagatik. Munduko Dopinaren Aurkako Agentziaren araudiak dioenez, furosemida diuretiko bat da, eta positiboak mozorrotzeko substantziatzat jotzen du. Epailearen eskuetan dago erabakia, baina iaz araudia gogortu zutenez, ezin baztertu daiteke Ares lehiaketatik kanpo uztea. Hala gertatuz gero, Deustuk beteko luke Galiziako taldearen hutsunea.

MUSIKA

Mikel Uraken Müllerrenean

Abenduaren 10ean azken diskoa aurkeztuko du Mikel Uraken santutxuarrak Müllerrenean. Bigarrenez astinduko ditu gitarraren eta eztarriko kordak Deustun, oraingoan Izaki bizidun berriak lana aurkezteko. Hirugarren diskoa du bakarlariak, zortzi kantaduna. Folk euskaldun(berria) izenaren pean etiketatu izan dute adituek, musikan esperimentatzea eta berrikuntzak proposatzea baitu gustuko, euskaratik. Kontzertu honekin Negu kulturala dinamika abiatu nahi dute Berbaizuko kideek, Udazken kulturalaren ondotik. Datozen hilabeteetan zenbait dokumental proiektatzeko asmoa dutela azaldu digute elkarteko kideek.

EUSKARAREN EGUNA

Done Petri plaza 'euskaraz jantzi' zutenekoa

Abenduaren hiruan Euskararen Nazioarteko Eguna ospatu zuten hainbat lagunek Deustuko Done Petri plazan. Berbaizu Euskara Elkarteak deituta, hainbat norbanako eta entitatek aurretik kakorratzez jositako oihal zatiekin apaindu zituzten kioskoko zutabeak. Segidan, 2020ko Euskaraldia aurkeztu zuten, eta ekimena Deustun martxan jarriko duen lantaldera batzeko deia luzatu zieten bertaratutakoei. Kalean giro hotza izanagatik ere, epel ibili ziren Euskararen Eguna ospatzera gerturatutako hamaika lagunak. Txokolatea ere epel dastatu zuten, datorren urteko ariketa antolatzeko indarrak hartuaz batera. Horregatik izan zuten *(H)ari(a) gara* leloa, "denon hariak josiz sarea sortzen" ari direla adierazteko. Doneperiagara gerturatuz gero, oihal zatiez egindako sareak kioskoa atontzen jarraitzen dutela ikusiko duzue. Antolatzaileek deustuar guztiei luzatu diete gonbita oihalak gehitzen jarraitu eta zutabe guztiak "euskaraz janzteko".



Urtea: 2003

Txema Luzuriaga

Elorrietako hiltegia

Elorrietako etxe txiki hau Deustuko elizatearen antzinako hiltegia zen. Elorrietako Erriberako 17. zenbakian zegoen eta 1925ean Deustu Bilbora anexionatu zen arte martxan egon zen. Argazkian ikus daitekeen bezala oraindik ere Deustuko armarria gordetzen zuen aurreko horman. 2007. urtean bota zuten etxea, inolako abisurik eman gabe.

Segi Deustualdean euskara sustatuz. Eskerrik asko denoi!

Iragar zaitez
Prest!-en
tel. 94 447 10 42
bilbokoaldizkariak@gmail.com

AZALA
TATTOO STUDIO
Errondoko kalea z/g. Ibarrekolanda
tlf. 640 903 311
instagrama: @azala.tattoo

YVES ROCHER
FRANCE
Ercilla, 32 Indautxu 94 4703765
Luis Power, 7 Deustu 94 47639 48
H. de Amezaga, 27 Bilbo 94 4437303

Optica Avenida
Agirre Lehendakaria, 147
SAN INAZIO
Tfnoa: 94 475 11 24

ATXURI TABERNA
Luzarra 1
Deustu
946 75 40 17

BREST
kafetegia
Blas de Otero, 5
Tfnoa: 94 447 95 43

Alonso Pertsianak
☎656 410 475
Plaza Celestino Mª del Arenal, 12
48015 Deustu-Bilbao
Tel.: 94 600 14 24
alonsoper@euskalnet.net

Urrunago zertarako?
Deustuko Liburudenda
San Pedro Plaza 4

Toki Berri
Taberna
Good vives!
Luzarra, 6 - Deustu
@tokiberritaberna

1924tik Deustun
Tintorería La Flor
Julio Urquijo 3 - Deustu
94 475 18 29
Mantak, edredoiak, ezkontza eta jaunartze jantziak...garbitzen ditugu

artez
euskara zerbitzua
Probatu
herrizki.eus
ANDROID APP Google play
App Store

Ramon y Cajal, 8 behea
48014 Deustu
tel. 94 475 22 33
matxintxu@aeknet.net
Matxintxu
aek ■ euskaltegia
Matrikula zaitez!

Nailan
Parquetak - Barnizak
Morgan kalea z/g
48014 Deustu - Bilbo
tfno: 94 475 67 84
nailanparquet@euskalnet.net

RONDOKO
HORTZ KLINIKA
Iratxe Jimenez Bobadilla
ODONTOLOGO ELKARGOKIDEA ZKIA: 855
Odontologia orokorra eta prebentiboa
Ume eta helduak
Tratamendu estetikoak eta garbiketa
Peridontzia eta protesi kengarriak
Ortodontzia
PADI
OSAKIDETZA
Errondoko z/g, SAN INAZIO
☎94 475 5932
E.P.S. 425/97

Bitxidenda
Sabin
Erlojudenda
Rafaela de Ibarra, 6
Tfnoa 94 475 63 16

KM PERSIANAS CERRAMIENTOS
Deitu eta Ikusi!!
PERTSIANAK ETA ITXIDURAK
Araneko, 28 - 48014 Bilbao
TEL. 94.447.70.32
E-MAIL. persianaskm@persianaskm.com
www.persianaskm.com

BIDAURRE
elektrizitate eta margo-lanak
2daurrelan@gmail.com
669 42 76 23

Zer egingo zenuke klima aldaketari aurre egiteko?

Aitor Sarrionandia-Ibarra

Julen Rotaetxe Doneperiaga

Ohiturak aldatu beharko genituzke eta hasi beharko genuke hiri barruan eta herrietan autoa aparkatuta uzten eta bizikletak edo garraio publikoa erabiltzen.

Meritxell Gomez Tarragona

Energia berriztagarriak askoz gehiago sustatuko nituzke eta zentral nuklearrak itxiko nituzke. Era berean, trafikoa eta autoen CO2 emisioak askoz gehiago kontrolatuko nituzke.

Txetxu Blanco Begoña

Beharrezkoak ez diren ontziak ez nituzke erosiko, alegia, den-dena ontziratu gabe edo solte erosiko nuke.

Jeronimo Menor Cadiz

Erregai fosil gutxiago erabili beharko genituzke eta hutsune hori elektrizitatearekin bete.

Aitor Urkixo Erribera

Autoen ihes-hodietan xurgagailuak jarriko nituzke eta horrela negutegi efektua apalduko litzateke.

Jabi Vazquez Etxebarri

Edozein herriko edo auzoko jaietan plastikozko basoak euro batean saltzen dizute, eta plastikorik ez genuke erabili beharko. Gainera baso gehienak edozein lekutan botata uzten dira.

>> MUSIKA

‘ODISEA’, TALDE HELDUAGO BATEN EMAITZA

Deustuko Gazte Lokalean jaietan antolatzen den Bertsio Gauean jotzeko elkartu ziren orain lau urte. Hiruzpalau abesti prestatzea zen lehen asmoa, baina bigarren lana kaleratu berri dute, zortzi abesti propio dituen ‘Odisea’ diskoa.

Testua: PREST!

“Ertz ezberdinez jositako rocka” egiten dute, eraldakorra eta ezohikoa, baina aldi berean “entzuterraza eta freskoa”. Iturri askotatik edaten dute, nabari da euren doinuetan. Stonerra, metala, heavya, bluesa, groove-ak, riff indartsuak, erritmo aldakorrak, melodia likatsuak... nahasi eta euskaraz kantatzen dituzte.

Abenduaren 28an Basauriko Txarraska Gaztetxean aurkeztuko dute *Odisea* diskoa, Orbelak San Inazio eta Deustuko taldearekin eta Rodeorekin batera. Etxean hasiko dira, izan ere, bertan jaio ziren eta bertan entseatzen dira. Gaztetxeak eta gune askeak “Euskal Herriko kultura eta underground eszenaren birikiak” direla uste dute, eta horregatik maite dute gaztetxeetan jotzea. “Agertoki handietan jotzea gustatzen zaigu, baina horietan publikoarekin konektatzea ez da horren erraza”, diote.

San Inazioko musika eszenaren inguruan galdetuta, akustikoak ez diren kontzertuak antolatzeko leku baten falta sumatzen dute. Betidanik auzoan hainbat rock eta punk talde egon direla azaldu digute. Egun auzoko kideek osatuta eszena txikiko taldeak (Orbelak, Uger, Striknina, Palos de Ciego, Raust!...) zein agertoki handiagoetara ohituta daudenak (Ratzinger, Toni Metralla y los Antibalas...) aipatu dituzte. Udalak ez omen ditu gauzak erraz jartzen, eta tabernari batzuen ahalegina eskertzen badute ere, horrelako kontzertuak egiteko tokirik egongo balitz auzoko eszena are potenteagoa izango litzatekeela uste dute.

Lehen diskoa, bigarren lana

2015ean sortu, 2017an *Raust!* izeneko demoa kaleratu, eta 2019ko hondarrean argitaratu dute lehen diskoa. Bateria-jotzailea aldatu zutenetik bi urte eman dituzte bostek elkarrekin lanean. Horregatik, *Odisea*rekin batera talde helduago bat aurkeztu dute. “Ideia landuak, soinu eta melodia txukunak, influentzia ezberdinetako kantuak eta talde konpaktuago bat” entzun ahal izango dugu hemendik aurrera.

Berrizko Lorentzo Recordsen grabatu eta nahastu dituzte abestiak, Aitor Ariñoren (Su ta gar, Extremoduro, Platero y Tú...) gidaritzapean. Prozesu “luzea eta gogorra” izan dela aitortu digu boskoteak, baina buruan zituzten ideia guztiak islatzea lortu dute, eta pozik daude emaitzarekin. Detailez josita dago lana, eta kolaborazio bat edo beste ere badu, esaterako, diskoari izena ematen dion abestian Garazi Olabarrietaren ahotsa.

http:// sarekada

zut.eus – "Z belaunaldiaren aldizkaria"



Gazteei zuzendutako aldizkari elektroniko berria da Zut. Multimedia edukiak mugikorrerako aplikazio baten bitartez irakur eta ikus daitezke, bertikalean. *Gaztezulo* eta ADM hedabideek sortu dute aplikazioa elkarlanean; azken hau Ttap aldizkari digitala argitaratzeko sortu zen. Aplikazioarekin batera *Ixa* websaila aurkeztu dute; hau ere, formatu bertikalean eta euskaraz argitaratuko da, Zut aplikazioan bertan. Etorkizuneko ikus-entzunezko erronkari heldu nahi izan diote bi proiektuen sortzaileek, eta elkarlan handiaren emaitza dira aurkeztutako bi produktuak.

Txikipedia lehiaketa
https://eu.wikipedia.org/wiki/Wikipedia:Txikipedia_lehiaketa

Txikipedia "umeentzako euskarazko entziklopedia txiki eta askea da". Abendutik aurrera, eta martxoaren 31a bitarte, bertan artikuluak idazten dituzten ikasleen lana saritzeko lehiaketa antolatu dute. DBHko, Batxilergo 1eko eta Lanbide-Heziketako erdi-mailako ikasleek hartu dezakete parte, bikoteka eta euren irakasleen bitartekaritzarekin. Hainbat sari banatuko dituzte kategoria ezberdinetan, abentura-parkeetarako sarrerak eta komikiak tartean. Lehiaketaren bitartez ikasleak Txikipediaren erabiltzaile aktibo bihurtu nahi dituzte, kontsultara mugatutako irakurle pasibo beharrean, artikulugile izateko.

PREST!: PIXKANAKA AURRERA

Hilabeteak daramatzagu PREST! aldizkariaren egoera larriaz ohartarazten. Aurten dirulaguntza guztien atzerapenak alarma guztiak piztera behartu gaitu, ekonomikoki zeharo baldintzatuta gaudelako, eta edozein gorabeherak buruhauste handiak dakarzkigulako. Aspaldiko kontua da Deustuko aldizkariaren baliabide urritasuna, baina oraingoan ataka oso larrian gaude. Zorionez, urrian Bilboko Udaleko dirulaguntza jaso genuen, eta dirudienez urtarrilean Bizkaiko Foru Aldundia iritsiko da. Hau horrela izatekotan, berehala hasiko ginateke zuekin guztiekin zorrak kitatzen, asko baitugu. Beste behi ere, eskerrik beroenak eman nahi dizkizuegu era batean edo bestean egoera latz honi aurre egiten lagundu diguzuenoi, zuek gabe aldizkari hau ez litzateke posible izango!

Diskoa prestatzen emandako denbora luzearen ostean jotzea baino ez dute buruan, ahal bezain beste kontzertu eman eta lana ondo aurkeztu: "Jo, jo eta jo". Basauriko emanaldiaz gain badituzte beste hainbat lotuta: Sopelan, Igorren, Barakaldon... Nolanahi ere, ez diote proiektu berrietan pentsatzeari utzi. Bigarren bideoklipa grabatu nahi dute, eta Errondo Auzo Etxean jotzeko saio akustiko bat prestatzen ari dira.

Raust!en musikaz gozatu nahi duenak izango ditu zuzenean entzuteko aukerak, eta diskoa eskuratu nahi duenak kontzertuetan bertan zein zenbait tabernatan (San Inazion, Miñon) egin dezake.

DAVID GONZALEZ: "MUSIKARI EZIN DIOT GEHIAGO ESKATU"

PREST! aldizkariaren 93. zenbakian, 2009ko ekainean, elkarrizketa egin genion musikari deustuarrari. Berri Txarrak taldeko baxu-jotzaile izatera igaro zen orduan. Hamar urte geroago, berriz elkartu gara etapa horren itxieraz mintzatzeko.

Ibilbide luzea duzu baxua eskuetan, momentu kuttunik daukazu?
Asko daude, baina, beharbada, Pi L.T. taldearen deia jaso nuenekoa izango da bereziena. Oso ondo gogoratzen dut: zale amorratua nintzen, oso gaztea, musika munduan dena egiteke neukan, eta beraiek eman zidaten aukera. Inflexio puntua izan zen, hortxe hasi bainuen ibilbide profesionala musikaren munduan.

Orain hamar urte hasi zinen Berri Txarraken. Zenbat aldatu da taldea?
Suposatzen dut, musikalki, behar bezainbeste, batez ere, horrenbeste urtez iraun dugulako. Modu berean ulertzen genuen musika eta asko ikasi izan dugu batak bestearengaindik. Hiruron artean egindako ekarpena oso garrantzitsua izan da.

Zer irudi zenuen taldeaz bertako baxu-jotzailea izan aurretik?
Egia esan, ez nintzen taldearen jarraitzailea. Taldea ezagutzen nuen eta asko miresten nituen haien ibilbidea eta musikarekin zeukaten konpromisoa. Nik modu berean ulertzen nuen musika, beraz, deia jaso bezain laster, abestiak ikasten hasi eta taldearen trebeziaz jabetu nintzen.

Imajinatzen zenuen zure burua 25.000 pertsonaren aurrean jotzen?
Bai. Txikitatik oso argi izan dut nire lekua oholtza gainean zegoela eta horren bila joan naiz beti. Nerabe nintzenetik milaka pertsonen aurrean jotzen ibiltzea amesten nuen eta hori lortu ondoren, konturatu naiz berdin didala zenbat gende daukadan aurrean. Nire bizitzari zentzua ematen dion hori eszenatoki baten gainean dago, aurrean pertsona bat edo hamaika egonda ere.

Zer eman dizu bide honek?
Jakituria, esperientzia, musikari eta pertsona moduan heldutasuna, amets asko egia bihurtzeko aukera, lagun berriak... Era berean, arriskuez jabetzeko eta zer ez nuen izan nahi jakiteko ere balio izan dit. Bidaia liluragarri honetan iparra galtzea nahiko erraza da tamalez, eta hori ikusi ondoren, argi daukat bai bizitzan, bai inguruarekin nor eta nolakoa izan nahi dudan.

Cobra taldea sortu zenuen BTX-ken jotzen hasi baino hiru urte lehenago. Nolakoa izan da biak uztartzea?
COBRA alternatiba musikal bat moduan sortu zen eta hasieratik inolako betebehar edota helbururik ez izatea izan da horrenbeste irauteko sekretua. Laurok lantalde moduan funtzionatzen dugu eta norbaitek huts eginez gero, ez da ezer gertatzen. Nire kasuan, nahiz eta azkenengo hamaika urteetan nahiko lanpetua ibili naizen, bi disko eta EP bat grabatu ditugu eta disko bakoitzeko birak egin ditugu. Agian, ez nahi beste, baina tira, eutsi diogu. Zorretan sentitzen naiz taldearekin eta, BTX bukatu zenetik, taldeari guztia bueltatu nahi diot. Horretan gaude, buru belarri disko berria prestatzen.

Zer sentitu zenuen azken kontzertuan?
Taldea bukatuko zela aspaldi nekien, *Denbora Da Poligrafo Bakarra* diska hirukoitzaren bira amaieran ohartu nintzen amaiera hurbil zegoela. Beraz, denbora izan nuen errealitate horri aurre egiteko. Gero *Ikusi Arte* bira heldu zen eta amaiera horri data zehatza jarri genion. Harrez geroztik, nire burua prestatu dut azaroaren 23an gertatuko zena kudeatzeko. Sentipen guztiak alde batera utzi nituen eta taula gainean beti egin dudan hori egiten saiatu nintzen, jarraitzaileekin esker onekoa izaten eta disfrutatzen, besterik ez.

Nola azalduko zenuke azken urteotako, eta, batez ere, azken hilabeteetako arrakasta?
Ez dut uste gertatutakoa taldearen ohiko errealitatea izan denik. Nahiz eta goranzko ibilbidea izan dugun, zoramen horrekin zerikusi handiagoa izan du amaierak ekarritako ikusmirak. Berri Txarrak taldearen kontzertuak gertaera sozialak bihurtu dira eta azkenengo bira honetan zuzenekoetara "joan behar zelako" mezua hedatu da. Dena den, egia da hori lortzea oso zaila dela eta uztea erabakitzen duten hainbat taldek ez dutela horrelako erantzunik jasotzen. BTX-i

Testua: PREST! - **Argazkia:** Galder Izagirre

sari hori jasotzea tokatu zaio eta 25 urteetan izandako jarraitzaile leial guzti horiei eskerrak baino ezin dizkiegu eman, beraiekin zorretan gaude betirako.

Leku eta agertoki oso desberdinetan jo duzu. Non gozatzen duzu gehien?
Denbora eta esperientziarekin ikasi dut agertoki edo leku guztietan disfrutatzen. Aukeratu behar badut, nahiago ditut leku txikiak. Jendea gainean izatea gustatzen zait eta guztion artean sortzen dugun magia hori gertutik bizitzea.

Norekin jotzea gustatuko litzaizuke?
Asko daude eta ia gehienak ezinezkoak lirateke, beraz, ez ditut ezta aipatu ere egingo. Nahiago dut jo ditudan guztiekin gelditu. Askotan pentsatzen dudan gauza bat da, nire 25 urte baino gehiagoko ibilbide guztian zehar inoiz ez dut gustatzen ez zaidan inorekin jo, grabatu edo dena delakoa eta hori ez da gauza erraza musikaren mundu honetan. Oso zorionekoa izan da nire ibilbidea.

Eta non? Egon ez zaren agertokiren batean jotzea gustatuko litzaizuke?
Zerrenda amaigabea izango litzateke.... Dena den, ez naiz kexatuko, musikari ezin diot gehiago eskatu!

Berri Txarrakek izugarrizko proiekzioa izan du mundu mailan, nahiz eta euskaraz kantatu. Zailtasunik izan duzue?

Galdera hau askotan egin digute eta bitxia da erantzun baten bila konturatzea etxetik zenbat eta gertuagogaudenean, hizkuntzaren egoera orduan eta gehiago aipatzen dela. Kanpoan gaudenean inori ez zaio arraro egiten gure hizkuntzan abestea, areago, jakinmin handia erakusten dute gure kultura eta hizkuntzaren inguruan. Adibide gisa, Bill Stevenson, Steve Albini edota Ross Robinson ekoizle famatuek normaltasun osoz ikusten zuten euskaraz abestea eta inoiz ez ziguten ezer galdetu. Egia da, munduan zehar zure musika zabaltzeko euskaraz abestea ez dela aukerarik komertzialena, baina beti pentsatu dut talde honen nortasunaren zati garrantzitsu bat hizkuntza dela. Beti esan digute "inglesez edo gaztelaniaz abestuko bazenute...." eta nire ustez horrela izanda talde honen ibilbidea eta lorpenak guztiz desberdinak izango ziren; ez dut uste horren urruti ailegatuko ginenik.

Orain 10 urte, BTXen jotzen hasi zinenan, elkarrizketa egin genizun PREST! aldizkarian. Jarraitzen duzu Deusturekin harremana mantentzen?
Zuek izan zineten elkarrizketatu ninduten lehenengoak, nire amak oraindik gordetzen du alea. Plazerra da niretzat zuekin zirkulu hau ixtea, are gehiago Deustuko aldizkaria izanda, *tomateroak*! Nahiz eta gaur egun ez naizen bertan bizi, maiz joaten naiz gurasoei bisita egitera!

PINTXODROMOA

>>SUKALDARITZA

BARRENGORRI BETEAK

Urte honetako azken pintxoaren bila, Blas de Otero kaleko 5. zenbakian dagoen Brest taberna-kafetegira gerturatu gara. Egunero eskaintzen dituzten kafeak eta tortillak topatu ditugu bertan, bai eta hainbat berrikuntza eta sorpresa ere.

Zailtasun maila: Ertaina

Egiteko denbora: 20 minutu

Prezioa: 1,60 €

Berezitasuna: hainbat zapore ezagun nahasteak zapore berri bat lortzen du, ohituta ez gauden zaporea.

Kontu batzuk

Orain urtebete hartu zuen Brest kafetegiaren gidaritza Patxik. Tabernaren giroari jarraipena eman dio, berrikuntza batzuk tarteko, eta urte honetan jasotako babes eta konfiantza eskertu nahi izan ditu. “Bezeroentzako etxea izan nahi dugu”, azaldu digu Ada emazteak, eta horregatik familia-giroa sortzeko lan egiten dute. Arrautza beteek kafetegiko pintxo izarra izaten jarraitzen badute ere, berriak sortzea dute atsegin, aurkeztera gatozen barrengorri beteak kasu.

Brest kafetegiko Ada

BREST kafetegia

BREST KAFETEGIA
Blas de Otero 5, Deustu
94 447 9 43
Astegunetan: 07:30-itxi arte
Asteburu eta jaiegunetan: 09:00-itxi arte

Zelan egin?

Hainbat elaborazio fase ditu. Alde batetik, tomate tartara prestatzeko, tomatearen okela ondo xehatu behar da, baina birrindu gabe. Hirugiharra ere ondo txikitu behar da, eta zartaginean frijitu kurruskari geratu arte. Bi minutu lehenago zatitutako barrengorriak gehitu behar dira zartaginera. Aliolia ere etxekoa egiten dute. Dena prest dela, muntatzea baino ez da falta. Ogiaren gainean urdaiazpikoa jarri, tomate tartara txanpiñoi barruan sartu, hirugiharra erantsi eta amaitzeko alioliarekin apaindu.

OSAGAIAK

Ogia
Urdaiazpikoa
Hirugiharra
Txanpiñoiak
Etxeko aliolia
Tomatea
Olioa

Presta itzazu Deustualdeko tabernetako pintxo goxoenak zure etxean!
Hementxe jasoko dituzu argibide guztiak. Eta hurrengo hilabeteetan...

ZURE PINTXO ONENAK GUREKIN KONPARTITZEKO

Prest?

AITORTU ZURE SEKRETUAK HEMEN

kultur txotx

Literatura eta musika fresko-freskoa gure aholkularien kupelekoa

LAURA FEIJO IGLESIA

Sortzailea eta bihurria

AGUR BERO BAT

Urtebete pasa da bi hilero behin ataltxo honetan nire kultur gomendioak idazteko proposamena luzatu zidatenetik. Gerora, txanda tokatzen zitzaidanean eta zeren inguruan idatzi pentsatu behar nuen bakoitzean, hiri hau kulturalki uste baino biziago dagoela konturatzen joan naiz, zorionez.

Hil honetan, berriz, agur esatea tokatzen zait, batez ere nire hitzak irakurri eta gomendioek bultzatuta nonbaitera joan edo zerbait egitera animatu zaretenoi: AIRE galerian gozatu, P6ra hurbildu, Miren Amurizaren liburua irakurri, kaleaz gozatu edota paperaren garrantziaz ohartu zaretenoi. Zuei, zinez, eskerrik asko. Kultura ez baita ezer bultzatzen duenik gabe.

Eskerrik asko PREST! aldizkariari, ondo dakidan arren egiten duten lan guztia eskertzeko lerro batzuk ez direla nahikoa. Kultura euskaldunaren sustatzaile izateagatik eta bai niri, bai ni bezalakoei ahotsa emateagatik. Gure auzoa ez litzakeelako berdina izango hilero ezagunen baten argazki, idatzi, iritzi, pintxo errezeta edo bertsorik irakurri gabe. Behar beharrezkoak baitzarete gure errealitate guzti honetan eta zuen ondoan izango garelako, garai onetan eta txarretan.

Beraz, kulturaz gozatzea eta kulturarekin gozaraztea gomendatzen dizuet azkenengoz idatziko dudan honetan. Nahi duzuen hori egiteko gai zaretela sinetsi eta egin. Gure hizkuntzarekin jolastu. Bakarka, binaka, zein taldeka. Kulturak egiten baikaitu.

Eta sortu, sortzea baino politagorik ez dagoelako.

SALVA ANAKABE SOLABARRIETA

Elorri bertso-eskolako kidea

HOGEIA HURBILTZEN

Doinua: Betroiarena A

Bi mila ta hemeretzi
badoala prestu
atzera egiterik
bizitzak ez du
sarri ibiltzen gara
larri era estu
hurrengoan poz pozik
barre ta abestu
hogeia da aurkeztu
imajina, amestu
bideak erreztu
txarrak ezereztu
eta maite duzuna
ondo babestu

Bi mila ta hemeretzi
laster zaigu hiltzen
denboraren aurrean
burua umiltzen
eta iraganean
hor doa murgiltzen
historiaren putzura
badoa amiltzen
hogeia hurbiltzen
saia sendo ibiltzen
ta indarrak biltzen
errimak biribiltzen
ea Deustun euskara
ez den isiltzen

DEUSTUALDEKO ALDIZKARIA

BABESTU

Prest!

URTEAN 25 EUROKO
EKARPENAREKIN

INFO +
prestharpide@gmail.com
94.447.10.42
Ramon y Cajal 42

Bilbon euskaraz

Bilbao

www.bilbaoeuskaraz.eus

ESKERRIK ASKO Prest!
ALDIZKARIA BABESTEN DUZUEN GUZTIOI!